



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2017ko uztaila · 329. alea

TOKIKOM

# JAIAK PIZTEKO GERTU





## AURKIBIDEA

- 4** Bote prontuan Zapp familia
- 6** Begira Flamenko taldea
- 8** Zer berri Aktualitateko albisteak
- 12** Argazki bidez Gaztetxeko Tripafesta
- 14** Argazki bidez Udalekuak
- 18** Erreportajea Herriko jaiak
- 22** Kirola Pelota txapelketa
- 24** Kultura Oso Basatis
- 14** Argazki bidez San Andreseko jaiak
- 28** Sakonean Oporretan Al pueblo
- 30** Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3** Neuretik Lorea de Castro Batzuk hemen bizi dira, baina beti dira hango
- 16** Gutunak Aidor Aizpuru Suteak eta berotegi efektua
- 16** Gutunak Zubian zer Gaztetiaren berri
- 16** Hausnarketa Eraso sexista eta homofoboak
- 17** Zir(r)ika Oporrak
- 17** Puntua Mikel Garcia Zuk euskaraz, nik erdaraz



**Pil-pilean  
herri komunikabidea**

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com) • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkartea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Telefonoa 943 75 13 04

**Erredakzioa**  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
[egoitz@pilpilean.eus](mailto:egoitz@pilpilean.eus)

### Publizitatea

[publizitatea@pilpilean.eus](mailto:publizitatea@pilpilean.eus)  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Azala** Fernan Oregi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea

### Inprimategia Gertu Koop.

**Banaketa** Pil-pilean Ekoizpena  
**Lege Gordailua:** SS-537-2000  
**Tirada:** 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Batzuk hemen bizi dira, baina beti dira hango



Lorea  
de Castro

5 urte zituela ekin zion bidaiari nire aitak, nire aittitta ondoan zuela. Trenean heldu ziren Placencia de las Armasera, 1958. urteko irailean, Estazino Kaleko tren-geltokiak etengabeko joan-etorria zuen garaian. Ez ziren etorkizun hobe baten bila herrira heldu ziren bakarrak. Familia asko heldu zen garai hartan, Castillatik, Galiciatik, Extremaduratik,...

Mota del Marqués herrikoa da jatorriz nire aita, Valladolideko herri txiki batekoa. Aittitta jubilatutakoan, bueltako bidaia egin

zuten berak eta amamak. Eurretaz ditudan lehen oroitzapenak hangoak dira. Ama, aita eta hirurok Gabonetako oporretan joaten ginen egun batzuk pasatzera.

Solairu bakarreko etxeak, herriko gaztelua muino gainean, ardiak kaletik eta amapolak nonnahi. Exotikoa irudituko zitzaidan akaso. Ez dut oroitzen.

Seme-alabekin aurten egin dugu lehen bidaia herrira. Haurrek sekulako gozatua hartu dute. Solairu bakarreko etxeak eta gaztelua muino gainean bai, baina iada ez da ardirik, iada ez da amapolarik. Latifundioek hartu dute dena, eta herbizidek akatu dituzte amapolak

bezalako espezie basatiak.

Nire aitaren generazioak badu drama bat. Batzuk haurrak zirela heldu ziren hona. Beste batzuk hemen jaio ziren, gurasoak aurretik beste nonbaitetik etorri ondoren. Baina drama konpartitu bat dute. Izan ere, ez dira ez hemengo, ez hango. Hemen hazur baltzak, maketoak, belarri motzak, erdaldunak izan dira. Han forasteroak.

Exotikoak han, orain, gu gara. Forasteroak gara. Kanpotarrak. Herritik joan zireneri forastero deitu izan diete eta haien ondorengoak ere forastero gara, noski.

50-60. hamarkadetan jendetza heldu zen Espainiako txoko guztietatik gure Plaentxiara. Gogor egin zuten lan euren familiak aurrera ateratzeko. Inork galdetu al die sekula nola sentitu ziren hona heldutakoan? Nola tratatu zituzten? Herriminik sentitu zuten? Uste dut memoria historikoa deitzen den liburu kolektibo horretan badugula guzti horretaz zer idatzi.

Izango dira etorkizunean ere beste drama batzuk, Castilla baino exotikoagoak diren beste leku batzuk. Denon ardura izan dadila inor forastero ez sentitzea. Izan ere, Jon Benito idazleak “Pueblo” poeman dioen bezala: “batzuk hemen bizi dira eta beti dira hango”.

**“50-60.  
hamarkadetan  
jendetza heldu  
zen Espainiako  
txoko guztietatik  
gure Plaentxiara.  
Gogor egin zuten  
lan euren  
familiak aurrera  
ateratzeko.”**

# Zapp familia

TESTUA: **ARIANNE UNAMUNO** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Egunotan Zapp familiako kideak pasatu dira Soroluzetik: Herman, Cande eta euren lau seme-alabak: Pampa, Tehue, Paloma eta Wallaby. Graham-Paige-i, joan zen mende hasierako automobilari, pieza bat izorratu zaio, eta egun batzuetako geldialdia egin dute, ordezkoa iritsi bitartean.

Zapptarrek hamazazpi urte daramatzate bidaiatzen. Hego Amerikatik Alaskarainoko bidea egitea zuten amets, eta azkenean, kontinente guztiak zeharkatu dituzte.

## Zer da bidaia zuentzat?

Bizitza bizitzea, momentua bera eta aldaketak bizitzea.

## Zertan aldatu zaituzte bidaiatzeak?

Mundura zabaltzeak besteekiko sentikorrago egin nau ni neu (Cande). Etxean zaudenean, inguru berdina daukazu beti: kultura, erlijio eta pentsakera antzekoa duten lagunez, senidez, eskolez... inguratuta zaude. Maila sozial bereko jendea da eta borobil baten barruan zaude. Baina borobil horretatik irtetzen zarenean, inoiz uste ez zenuen jendearen etxean geratzen zara, eta haien lagun egiten zara, eta mundura irekitzen zara. Lagun oso oso desberdin eta asko izan ditzakezu, eta hori niretzat ederra izan da. Ez epaitzen lagundu dit, edozeinengandik ikasteko zerbait badudala ikasi dut.

Neure burua ezagutzen ere lagundu dit. Badakit zer egiteko gai naizen. Behin, esaterako, autoa jeitsi behar izan nuen nik neuk barku batetik, lau seme-alabak nirekin nituela. Autoa garabiari lotu behar izan nion, garabiaren arduradunarekin moldatu behar izan nintzen, deskontua lortu... Dena nik bakarrik. Momentua kritikoa izan arren, hori guztia egiteko gai naizela jakitea izugarria da.

## Zer sentsazio uzten duzue pasatzen zareten lekuetan?

Ametsa lortzeko esperantza. Norberaren ametsak betetzeko aukera esnarazten diegu. Gu ez gara saiatzen bidaia dezaten edo haien ametsak bete ditzaten esaten; guk geure ametsa egi bihurtuz erakusten dugu posible dela. Izan ere, 1928ko kotxe batekin, lau seme-alabekin, aurrezikirik gabe... Bidaia hasi genuenean, horrelakoak esaten zizkiguten: "seme-alabarik ez duzelako egin dezakezue" edo "aurrezkiak dituzuelako"; orain, berriz, "denbora duzelako". Eta hauxe erantzuten diegu: gure egunak ere 24 ordu dituela!

Bestalde, askok uste du bidaiatzen hasterako, dena jakin beharra dagoela, baina bidean ikasten da dena. Jendeak ezin du sinetsi zerbait behar duzunean agertu egiten dela. Adibidez, pieza bat izorratu zaigu orain eta

gizon batek Kanadatik oso merke saldu digu ordezkoa, bidaiarekin jarrai dezagun nahi duelako. Miamira bidali du eta han dagoen Iberiako langile batek, Madrilerara berak ekarriko duela esan digu. Trabakuan geundela (han dago autoa izorratuta eta geldi) ezagutu genuen neska batek esan digu, aita Madrilen dagoela eta larunbatean etxeratuko denez, berak ekarriko digula pieza. Beraz, pieza horrek bidea egingo du ia dohainik eskuz esku guganaino.

## Eta nago beti horrela ez ote den, ezta?

Beti, beti gertatzen da. Behin Ekuadorren galdetu zigun gizon batek: "esaidazu zuriaren antonimoa", eta Hermanek erantzun, "beltza"; "esaidazu onaren antonimoa", "txarra"; eta horrela jarraitu zuen, hauxe esan zuen arte: "esaidazu ametsaren antonimoa". Ez dago! Ametsaren kontrarik ez dago, ezta bidean amets baten kontra joango denik ere. "Izan konfiantza jendearekin", esan zigun. Gizateriarengan fede handiagoa ere zabaltzen dugu, beraz.

## Hainbeste jende eta kultura ezagututa, zer ikasi duzue giza kondizioaz?

Denok berdina garena! Denok daukagu amets bera, denok nahi dugu maitatuak izatea, denok nahi dugu lagunekin bidaiatu. Denok gauza berberak nahi ditugu! Desberdin jantzi, errezatu edo jan arren. Denok berdina garena deskubritu dugu.

## Nolakoa da zuen egunerokoa?

Errutinarik ez izatea da gure egunerokoa. Eskola orduak batean etxe batean, hurrengo hondartzan, hurrengo autoaren barruan... izaten da. Dena aldatuz joaten da eta saiatzen gara planik ez egiten, sorpresak bizi ahal izateko. Hala ere, gauza batzuk eguneroko egiten ditugu: eskolak eman, emailak begiratu...

## Zer iruditu zaizue Euskal Herria?

Dena oso ederra da, berdea eta menditsua. Eta jendeak oso harrera ona egin digu. Autoarekin laguntzeaz gain, herrialdeko gauzarik ederrenak erakutsi nahi dizkigutela sentitzen dugu.

## Norantz jarraituko du zuen bidaiak?

Bilbon ferria hartu eta Ingalaterrara joango gara. Ondoren, Holanda, Suitza, Belgika, Frantzia... Azkenik, Espainiara itzuli nahiko genuke eta belaontziz Brasileraino gurutzatu, handik autoa gidatuz Argentinaraino joateko.

Familiak idatzitako liburua, "Atrapa tu sueño", salgai dago liburudendetan. Facebooken ere badute orrialdea: "familiazapp".

**“Askok uste du  
bidaiatzen  
hasterako dena  
jakin beharra  
dagoela, baina  
bidean ikasten  
da dena.”**





## Ole, ole eta ole!

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Joan zen barixakuan, jaialdian herriko flamenko-taldeak Sevillanen dantza-emanaldia eskaini zuen Itxaropenan, jaien aurretik antolatu ohi duten jaialdian. Beroa izan zen emanaldia, dantzariak pasioz egin zutelako dantza eta jendeak gogotik jo zuelako txalo.

Baten batek esan zuen dantza egiteak bizitza luzatzen duela. Ez dakit luzatzen duen, baina gozagarriago egiten duela, hori seguru.



## Txurruken auzoak badu bere plaka



Txurrukenen plaka ezartzeko ekitaldia.

Joan zen zapatuan, Txurrukengo bizilagunek auzoaren jatorrizko izena duen plaka ezarri zuten, lehenago Serafin Achotegui izenarekin zegoena ordezkatuz. Auzotarrekin batera, ekitaldian izan ziren Udaleko

ordezkariak, baita Soraluze 1936 lan-taldeko hainbat kide ere. Ekitaldian bertsoak, aureskua eta kantuak izan ziren, eta luntxa ere izan zen hurreratu ziren guztien gozamenerako.

## Lapurretan egin dute Arasen



Stockean zuten materialik garestiena eraman dute: kobrezko, latoizko eta brontzezko 3-4 metroko xafiak eta erremintak. Lapurreta egiteko sistema orain dela bi urte *Itergan*

erabili zuten bera izan da; horman zuloa egin eta atzeko aldetik atera dute material guztia. Arasek badu alarma sistema, baina zulatu duten horma estalduratik kanpo zegoen.

## San Martzialgo estalpea konpontzen

San Martzialgo ermitaren ondoko estalpea konpontzeko lanak hasita daude. Dagoeneko, Goki eraikuntza enpresako langileek garbitu dute jausitako zatia, eta zutik gelditu zen zatian, berriz, biga nagusiak aldatu dituzte. San Martzial baserriko jabeek aurrerago erabakiko dute estalpea berreraikiko duten ala ez.



## Udal-eraikinak garbitzeko zerbitzua

Udalak esleitu du eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua. Aurrerantzean ere, Limpiezas Villar S.A. izango da garbiketez arduratuko den enpresa.

## Udal-Karpa hondatu dute

Asteburuan, ezezagunek udal-karpa zulatu dute, Udalak salatu duenez. Frontoian jarrita dagoen karpari, atzealdeko toldoak ebaki dizkiote labanaz. Kostu ekonomiko handia duten kalteak eragin dituzte, konpontzea ez delako erraza. Udalak gogor salatu du gertatutakoa.



# Itxaropenako karta txapelketako sariak



Karta txapelketako sarituak udal ordezkariekin.

Joan zen barixakuan banatu zituzten Itxaropenan karta txapelketako sariak, txapeldun eta txapeldun ordeei dagozkienak. Honako hauek dira, hurrenez hurren: musean, Igor

eta Aldaso - Karpin eta Leon; briskan, M<sup>a</sup> Luisa eta Marifran - Juanita eta Natalia; tutean, berriz, Iglesias eta Teo - Igor eta Aldaso.

## Benito Lertxundiren kontzertua

Irailaren 30ean, Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du kiroldegiko frontoian. Udalak iragarri duenez, kontzertua gaueko 22:00etan hasiko da, eta sarrerak salgai jarriko dituzte udaletxean eta kiroldegian uztailaren 24tik aurrera.



## Isabel Caballero urdaitegia

Isabelek urdaitegia zabaldu du merkatu plazako postuan.

**Zer dela eta erabaki duzu urdaitegia zabaltzea?**

Langabezian geratu nintzen eta herrian lan egitea nahi dudanez, probatzea erabaki dut.

**Zer produktu dituzue?**


Enbutidoak, kongelatuak, egurrezko labean egindako ogia, arraultzak...

**Zein dira produktu izarrak?**

Ogia egurrezko labean egindakoa da eta udaiazpiko paleta ere oso ona daukat. Irailean Extremadurako txorixoa, ezti, olio eta urdaiazpikoa ekarriko ditugu.

**Hangoak dituzu gurasoak?**

Bai, aita Badajozko Valle de la



Serenakoa da eta ama Quintanakoa.

**Zer behar da dendari ona izateko?**

Jendea ondo tratatzea. Niri gustatzen zait jendearekin egotea. Berdin dit gazteleraz edo euskaraz

egin, edo kristaua edo musulmana den, niretzat denak berdina dira.

**Zer moduz moldatzen zara euskaraz?**

Saiatzen naiz egiten eta ondo moldatzen naiz.

## Pillow labak ikustera



Ekainean bisitari-taldea etorri zen Hendaiaiko CPIE Euskal Itsabazterra zentroak antolatutako bidaia batean. Etorri ziren herrian dugun fenomeno geologiko berezia ikustera: *pillow labak*. *Pillow labak* basaltozkoak dira eta itsas sakonean gertatzen diren erupzio

bolkaniekoen ondorioz sortuak omen dira. Haitz hauek goi kretaziko garaioak dira, duela 65 eta 96 milloi urte bitartean sortuak, Kantauri itsasoa zabaltzen hasi zen garaioak. Soraluzen, mota horretako alerik bikainenetakoak ikus daitezke.

## Topatu dute Sabuako tumulua



Uztailean, Aranzadiko kideek hainbat kata egin dituzte Sabua inguruan, eta, bertan topatu dute Barandiaranek idatzietan aitatzten zuen baina kokapen ezezaguna zuen tumulua. Bere garaian, Barandiaranek industu barik laga

zuen tumulua, “egoera kaxkarrean” zegoelako. Aranzadikoek interesgarri iritzi diote tumulua industeari, eta, finantziarioa lortutakoan, lanei berrekiteko asmoa adierazi dute.

## Soraluzeko hiru gudari omendu dituzte Gernikan

Udalak gaztetxoendako antolatzen duen Idazlan Lehiaketaren XXXII. edizioa egin da aurten. Ondorengoak izan dira sarituak:

**A Mailan:** Maialen Ugalde, “Amonaren ipuina”; Pau Rascón, “Materialen istorioa”; Nagore Caballero, “Ur azpiko gizakiak”.

**B Mailan:** Amaia Hernández, “Zergatik ni?”; Jon López, “Amets bat errealitate egiten”; Naroa Zubiaurre, “Hondartzako misterioa”.

**C Mailan:** Iraultza Ostolaza, “Istripua?”; June Eguren, “Udate gaba”; Jone Gallastegi, “Atlantidako gizona”.



## Sagar-Errekako potzurako bidea

Debemeneko langileak hasita daude Sagar-Errekako potzurako bidea garbitzen. Maldarik handiena dagoen lekuetan bidea egiteko lanak hasiko dituzte hondeamakina txiki batekin, eta asmoa da abuztuaren hasierarako bidea egina izatea.





# BERBA LAGUNA

HARTU, EMAN, ERAGIN.

**IZEN EMATEA:** IRAILAK 18TIK URRIAK 31RA

<https://labur.eus/soraluze>

Antolatzailea



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzailea



# Tripafestako platera: eskerrona saltsan

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI

TESTUA: TRIPAFESTAREN ANTOLATZAILE-TALDEA

Aurten ere, azken urteotan bezela, hilabeteko azken barixakutan afaltoki beganoa eskeini izan dizuegu Gaztetxera gerturatu zaretan guztioi. Bestelako otordua eskaintzarekin batera, jasotako dirua gizarte eragileei bideratu diegu. Kultura-emanaldiak ere eskaini ditugu: kontzertuak, pailazoak... Lan boluntarioari esker, prestatu ditugu aurtengo 9 tripafestak. Hori dela-eta, eskerrak eman nahi dizkiogu Soraluzeko Gaztetxeari, afaltzera bertaratu zaretan guztioi eta borondaterik onenarekin lagundu diguzon guztioi. Eskerrik asko eta okerrik ez bada, irailen ikusiko dugu elkar!






# Ume gaiztuak udalekuetan

ARGAZKIAK: KUKUMIXO

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Bi aste izan dira, intentoak, Kukumixoko ume eta hezitzaileek elkarrekin pasatu dituztenak. Antxoni eta Peru Patagoniako lagunekin eta Marrazekin hasi zuten bidaia, eta hamar egunotan elkarrekin egin dute jolas, barre, negar eta lo. Bainatu dira Bergarako eta Eibarko pizinetan, Aulestiko eta Oñatiko putzuetan; eguna pasa dute Ezozin eta San Andresen; eta ospatu dituzte *Ume gaiztoen* festa eta *Kukufesta*. Egun horietako bizipenak oroimenean geldituko dira, askok bizitza osoan gogoratuko dituzte.





## Gaztetxiaren berri

Kaixo lagun,

Gaztetxiaren inguruko barrixekin gatzoz orainuan. Konturatuko zinatenez, azken aldian, Gaztetxeko atiak itxita dare, eta gure asmua da horren inguruko azalpen batzuk emotia.

Berrekiten-berriketan prozesuaren ostian, gazte asanblada barri bat sortu zan arren, arrazoi asko tarteko, talde horrek ikasturte honetan agortu dau bere ibilbidia. Beraz, ez dago Gaztetxia kudeatuko daben talderik, beraz, eguneroko jarduna eten egin da eta kolokan geratu da orain arteko gaztetxe aren eredia.

Egoera horren aurrean, kezka daukagun talde bat batzen hasi gara. Gure helburua da epe labur-ertainera (irailetik aurrera), Gaztetxiaren helburu eta gestioaren inguruan hausnartzea, erabakixak hartzea eta proiektu berri bat martxan jarriko daben prozesu bat abiatzia. Talde hori zabalik dago prozesuaren diseinuan parte hartu nahi daben edozeinentzat. Prozesuan zehar, parte hartzeko espazioak sortuko dira, guztion ekarpenak jaso ahal izateko.

Bitartean, Gaztetxiaren gestioa gure gain hartzea erabaki dugu, nolabait, “minimoak” betetzeko. Izan ere, gure helburu nagusia egoera hori iraultzea da, eta bide horretan indarra egiteko, ez dugu bideragarri ikusten orain arteko asanbladen martxa. Hori dela eta, lokala erabiltzeko irizpide batzuk adostu ditugu, nahi dabenarentzat eskuragarri darenak.

Lan-talde hasi barrixa garanez -nahiz eta azken urtiotan bakoitzak geure ibilbidia egin daben Gaztetxian-, bileren dinamika zehazteke daukagu. Hortaz, edozertarako, idatzi lasai ondorengo helbidera: [zubixanzer@gmail.com](mailto:zubixanzer@gmail.com)

Izango dozue gure barri. Besarkada bat.

**Zubixan zer**

## Suteak eta berotegi efektua

Aurten etengabeko suteen inguruko informazioa jasotzen ari gara albiste zerbitzuetatik. Baso-eremuetako suteek urtean 3 miloi tona gas sortzen dituzte munduan, eta horiek berotegi-efektua eragiten

dute. Guztia loturik dago, temperatura igo ahala sute gehiago sortzen joango baitira eta berotegi-efektua larriagotzen. Duela 25 urte berotegi-efektua talde ekologistek soilik hartzen zuten ardura bat zen, orduan hemen inork nekez sinetsiko zukeen ezta uda hasi aurretik, ekainean, Soraluzen 40 gradutik gorako temperatura inoiz izango genukeenik. 1750. urtetik CO2 eta metano gasak %36 eta %148 igo dira berotegi-efektua larrituz eta temperatura etengabe igoz, hori loturik dago klima-aldaketarekin eta sute arriskuen igoerarekin. 2000-2017 urteetan giza historian, temperatura neurgailuak ditugunetik (1880tik), 16 urterik beroenak izan ditugu. Ekologisten arabera, hurrengo urteetan penintsula iparraldeko mendi eta zuhaitziak dira, Euskal Herrikoak barne, sute arrisku gehien izango dituzten eremuak. Suteak ekiditeko jendearengan ahalik eta arreta gehien piztu beharra dago gai horren inguruan.

**Aidor Aizpuru**

[aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)  
[helbidera bidali gutunak](#)

## Jaiak denontzat

Eguneroko bizimoduan bezala, jaietan ere, elkarrekiko tratua ona izatea oinarritzkoa da, denok goza dezagun. Zer egin jarrera sexista, homofobo, xenofoboen aurrean?



**Mireia Gabilondo**  
TABERNARIA

Orain dela pare bat aste gertatu zen eraso bat gure tabernan. Berrogeita hamalau urteko gizon batek hemezortzi urteko neska bati heldu zion, modu txarrean. Kasu horretan, neskak esan egin zuen, eta ingurukoek babestu egin zuten. Askotan, tabernariok ez dugu jakiten zer gertatzen den, baina, jakinez gero, erreakzionatu egin behar da, noski.



**Mikel Aparicio**  
ANTOLATZAILEA

Gune Musik jaialdia antolatu dugun sei urteotan ez dugu izan jarrera sexista edo homofoborik. Zorionez, giroa egokia izan da eta denok errespetatu dugu elkar. Noizbait halakorik gertatuko balitz, erasotzailea harrapatuko genuke, jai eremutik bota, eta, beharrezkoa balitz, Ertzaintzari deituko genioke.



**Oporrak** Egilea: P.G.

**Olatz  
Andres**  
KORNER  
MOREAKO KIDEA

Erasoa identifikatzea kostatuko zaigu erasoa baimendu gabeko penetrazioarekin edo indarkeria fisikoarekin bakarrik lotzen badugu. Ezeroso sentiarazten zaituen egoera oro hartu behar da erasotzat, egoera sutilenetik hasita. Horretaz kontziente izateko eta gizartean aldaketa gertatzeko heziketa da oinarria, ezagutza eta indarkeria alderantziz proportzionalak baitira. Gogoratu: pertsonala politikoa da!



**Patricia  
Borinaga**  
ZINEGOTZIA

Zorionez nik ez dut egoera deserosorik bizi izan, baina halako jarrerei aurre egin behar zaie eta salatu. Erakunde publikoei dagokie prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzea, eta, aurren, Udalak, Korner Morearekin elkarlanean, hainbat ekimen antolatuko ditu: autodefentsa feminista ikastaroa, zapia, protokoloa banatzea, pankartak egitea...



**Mikel  
Garcia**

**Zuk euskaraz,  
nik erdaraz**

“Egun on”, nik. “Buenos días”, telefonoz bestaldean. “Euskaraz bai?”. Isilunea... “Zuk hitz egin euskaraz eta nik erdaraz egingo dut”, erantzun dit azkenean, eta poztu egin naiz. Poztu, proposamena ez diodalako nik egin behar izan, ez diot nik planteatu ea arazorik ote dagoen eroso sentitzen naizen hizkuntzari eusteko, ez du nire bizkar utzi hizkuntza aldatzeko ahalegina, ez du normalizat jo nik gaztelania dakidanez gaztelaniaz egin behar izatea. Eta tamalez, ez da hain ohikoa. Beharbada euskaldunok, diskurtsoa errepikatzeari esker, lortzen ari gara batzuen jarreraren eragitea. Horregatik, euskararen erabilerak behera egin duela kezkatzeko moduko albistea dugun honetan, kontsolagarria izan daiteke erabileran bakarrik ez, fokua hizkuntzaren ezagutzan ere jartzea (Pello Zubiriak esan moduan). Alegia, norberak euskaraz lasai eta aske egin dezakeela sinestea, gero eta gehiago direlako euskaraz ulertzen dutenak (nahiz eta egin ez).

*Jendartearen blogetik*  
[Argia.eus](http://Argia.eus)



ERREPORTAJEA

# Bost egunetan, jai

Aurten, Santa Ana jaiak ohikoa baino egun bat gehiago izango dute. Udalak 46.000 euroko aurrekontua bideratu du jaietako ekimenak antolatzeko.

ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI**  
TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Zapatuan, eguerdiko 13:00etan, Ezoziko Ama abesbatzako kideek botako dute aurtengo jaietako hasiera emango dien txupina. Izan ere, abesbatzak hogeita bost urte bete ditu aurten, eta jai batzordeak erabaki du eurak izateko txupinaren jaurtitzaila, urteotan egindako lanaren aitortza modura.

Ondoren, ekimen ugari izango dira bost egunetan zehar. Horietako batzuk aukeratu ditugu, horien inguruko informazio gehixeago eskaintzeko asmoz. **[ZAPATUA] 6. Open Air Gune Musik**  
Aurten 6. edizioa dela-eta, DJ jaialdiak parte hartzaile bereziak izango ditu: **IBAILO**, aurretik ere herrian parte



hartu duena; *CINTHYA NES*, tech-house musika jartzen duen emakume DJ; *DARIO NUÑEZ* gasteiztarra, sekulako maila emanez nazioartean diharduena. Horiekin batera, bertan izango dira Gunemusik Collective elkartearen parte hartzen duten Deba bailarako bederatzirak DJak ere: *APA*, *UROK*, *ARON*, *GARATE*, *ANDONI MARTIN*, *OIER AGUINAGA*, *DANIEL RIVAS & ERKOREK* eta *J&F*.

Bestalde, Galtzagorriek jakinarazi dute Zubiko txosnagunean jotzekoa zen *A tuti plen* herriko taldeak ez duela joko, taldekide bat ezinduta dagoelako. Gau horretan, herriko beste talde batek joko du, *Sunken Wheelsek*.

#### [DOMEKA] Herri-ikuskizuna

80. hamarkadako musika izango da aurtengo herri-ikuskizuneko musika-gaia: *Queen*, *Mecano*, *Tino Casal*, *ZZTop*, *Itoiz* eta beste hainbat talderen kantuak eskainiko dituzte. Ines Laskurain, Silvia Hernandez, Ander Garitano, Ander Ariznabarreta, Domentx Uzin, Elsa Berrueta eta Alejandra Jauregi musikarien laguntzarekin, sorpresaz betetako jaialdia prestatu dute zapatu gauerako. Dantzariak Michael Jacksonen doinura jardungo dute. Guztira, berrogei herritarrek baino gehiagok parte hartuko dute ekitaldian, dela musikari, kantari edo laguntzaile modura.

#### [ASTELEHENA] Umeendako jolasak eta apar-festa

Astelehen goizean umeendako jolasak (sormen-tailerrak, jolas erraldoiak eta karaokea) izango dira Plaza Zaharrean, eta apar-festa Plaza Berrian. Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi-taldeak gidatuko ditu ekimenok. Arratsaldean, berriz, azken urteotan etorri izan diren *Patxin* eta *Potxin* pailazoak etorriko dira.

#### [MARTITZENA] Goazen!

Arratsaldeko 19:00etan, ETBko Goazen! telesail arrakastatsuan parte hartu duten hainbat aktoreekin dantza egin eta kantatzeko aukera eskainiko duen ikuskizuna izango da Plaza Zaharrean. Bi koreografia ikasiko dituzte; ondoren, karaoke ireki bat egingo dute, denboraldian zehar telesaila girotu duten abestiak elkarrekin kantatzeko.

Goizean ere izango da kanturako aukera, eguerdian herrian ibiliko diren *Benta Zaharreko Muttiko Alaiekin*. Gauean, berriz, *Fan&Gorekin* erromeria izango da Zubi Nagusian. Tartean, *Bizimiña* Elkarteak herri-bazkaria eskainiko du, eta honako hau izango da menua: pintxomorrunoa, entsalada, paella, postrea eta kafea. Txartelak salgai daude 12 eurotan, Iratxo goxodendan.

**[EGUAZTENA] Los Mansos**

50 urteren ostean *Los Mansos* tablatu gainean izango dira, berriz

*Los Mansos* taldeko kideak tablatu gainera bueltatuko dira jaietako azken gauean, taldea sortu zuteneko 50. urteurrenean. *Los Mansos* taldea 1966an sortu zuten Juan Luis Ibarzabal, Ramon Aranzasti, Ramon Pia, Jose Rodriguez eta Jesus Urizar soraluzetarrek, koadrilen arteko musika-lehiaketa bat irabazi ostean. Taldeak rock doinu "modernoak" jotzen zituen; garai hartan pil-pilean zeuden *Beatles*, *Relampagos* edo *Los Brincos* moduko taldeen bertsioak.

1967ko martxoaren 16an eskaini zuen lehen emanaldia Eibarren, *La Bolera* dantzalekuan. Aurretik, abenduaren 31n, *Dia del seminarista Placentino* egunean, bost kantuko emanaldi labur bat eskaini zuten zinean. Gerora, herriko plaza eta dantzaleku askotan jo zuten. Juantxo Ibarzabalek gogoan du Durangoko *Abarasca* dantzalekuan urte oso kontratua egin zietela, baina, bereziki, gogoratzen du 1970ean Azkoitian *Los Brincosekin* batera jo zutenekoa.

*Los Mansos* taldeak bost-sei urteko ibilbidea egin zuen; 1972an, taldeari izena aldatu, eta *Akelarre* talde mitikoa sortu zuten. *Akelarre* izan zen euskara hutsean kantatu zuen lehenengo plaza-taldea, Ibarzabalen esanetan. Urtean 150 saiotik gora egiten zituzten Euskal Herri osoan barrena.

Jaietako kontzertua eskaintzeko, *Los Mansos* taldeko hainbat musikari elkartuko dira, gehienak soraluzetarrak, gaur egun kanpoan bizi badira ere: Ramon Pia, Jose Rodríguez "Pepito", Jesus Urizar, Pepe Cambronero (Ciudad Rodrigo), Iñaki Arriaran (Bergara) eta Juantxo Ibarzabal. Bi ordu inguruko kontzertua izango da, eta euskarazko, gaztelarazko eta ingelesezko kantauak joko dituzte.

"Pentsatu nuen bomba bat izango zela 50 urteren ostean berriz taula gainean batzea. Sekulako gogoarekin prestatu dugu kontzertua eta seguru nago jendea oso gustura geldituko dela. Jende askok ez daki *Los Mansos* eta *Akelarre*ren mailako taldeak Soraluzen sortu zirenik eta hori gogorarazteko ere baliatuko dugu".

## Fusioak dantza-ikuskizuna



Aukeran dantza-konpainiak *Fusioak* dantza-ikuskizuna eskainiko du zapatuan, gaueko 11etan, Plaza Zaharrean, iragarrita zegoen *Dantzaki* dantza-eskolaren saloiko dantza-saioa ordeztuko. Murumendiarazek zuzentzen duen konpainia entzutetsuak 2015ean estreinatu zuen ikuskizun hori; bertan, dantzaren bidez Euskal Herriko eta munduko folkloarearen erritmoak, doinuak eta osagarriak fusionatuz, aparteko ikuskizun garaikide, ezberdin eta herritzaila eskaintzen dute. Ordubeteko ikuskizuna da, publiko guztientzako aproposa.

## Eraso sexisten aurkako kanpaina



Korner Moreak eta Udalak, elkarlanean, hainbat ekimen prestatu dituzte jaietan eraso sexista eta homofoboaren aurka: autodefentsa feministako ikastaroa antolatu dute, jaietako zapiak banatuko dituzte "Dantzan iraultza guretzat" leloarekin, "Stop Erasos Sexistak. EZ beti da EZ!" pankarta jarriko dute udaletxean, eta, taberna zein jai-guneetan erasoak gertatzen direnean aplikatzeko protokoloa zabalduko dute, egoera horien aurrean zela jokatu jakiteko. Protokoloak hiru pauso proposatzen ditu: musika kentzea, argiak piztea eta erasotzailea jai-gunetik kanporatzea.

## Presoen eskubideen aldeko egitaraua



*Sortuk*, *Kalera kalera* kanpainarekin bat eginez, dei egin du txupina bota aurretik Zubian batzeko, euskal presoen eskubideen aldeko aldarriarekin, urruntze-politikaren amaiera eskatzeko.

Horrekin batera, aurten ere, finantzazioa lortzeko txosna jarriko dute Plaza Zaharrean eta Santa Ana egunean, presoen aldeko bazkaria egingo da plazako arbolapean. Bestalde, Sare Herritarrak jakinarazi du jaietan materiala saltzeko mahaia jarriko duela kalean.

## **Los Mansos (1970)**

**Ramon Aranzasti  
Ramon Pia  
Jose Rodriguez  
Juanxo Ibarzabal**



## Gallastegik eta Oñatek irabazi dute hamaseigarrena



Emozio handiko finala jokatu zuten, eta tanto baten faltan berdindu ostean, Gallastegi eta Oñate gailendu zitzaizkien Heriz eta Unanueri 22 eta 21. Hirugarren postua Argoitz Ariznabarretak eta Rober Gomezek eskuratu zuten, eta Koldo eta Jon

Heriz lehengusuek laugarrena. Pelotariak Euskal presoan giza eskubideak errespetatu daitezela eta Euskal Herriratu ditzatela eskatuz amaitu zuten Asier eta Iñakiren omenezko txapelketa.

## Kaiet Laskurain eta Txaro Lete garaile boletan



Kaiet Laskurainek irabazi zuen San Andresko jaietan jokatu zen bola-saria. Juanjo Ariznabarretak egin zuen bigarren, eta lehenengo

azotarraren saria ere eskuratu zuen. Emakumezkoendako saria, berriz, Txaro Letek bereganatu zuen.

## Spool Teamek irabazi du futbol-txapelketa

Spool Teamek irabazi du aurtengo Futbol 7 txapelketa, finalean aurkari zuen Calce Teamek partidura ez zaltzea erabaki eta gero. Elgoibartarrek nahiago izan zuten zapatuan Realaren aurka jokatu, ondorioz, soraluzetarrek partidua jokatu barik eskuratu zuten garaipena.

## Kiroltasun-erakustaldia Iñaki Ruizen lasterketan

Errekorrik gainditu ez bazen ere, kiroltasun-erakustaldi bikaina eskaini zuten Iñaki Ruizen lasterketaren seigarren edizioan. Izan ere, emakumezkoetan, Ana Reina lesakarra eta Nerea Amilibia zarauztarra batera sartu ziren helmugan. Gizonezkoetan Miranda de Ebroko Juan Rodriguezek egin zuen denborarik onena, eta soraluzetarrik azkarrena Iñaki Goenaga izan zen.

## Ander de Luis garaile Pancorbon

Ander de Luis soraluzetarrak Pancorbon (Burgos) mendilasterketa motza irabazi zuen zapatuan. Azken metroetan irabazi zuen lasterketa, sprint gogor batean bigarren lasterkaria garaitu eta gero.

**AURREZTU ENERGIA**

Beratu ura eguzki lepeakin edo oliarekin

fontaneria  
**San Andres**  
Iturgintza

629 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



**SUMA**  
basolanak

TMUG, 635 71 34 08

*baso garbiektak eta entresakak*  
zortzi laguneko taldea zure zerbitzura



**JUAN MARI**  
ARRANDEGIA

MERKATU PLAZA - 943 75 24 40

Azala freskoa  
Elizara erantsitako zerbitzua  
Eskuzkoak bertara ibiltzeko



**KLB6**

Kalearen 6  
943 57 74 38  
Makina-eta-makinen  
mantentzeak

MAISON MARTIN MARGIELA  
VERO MODA



**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde  
tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburutako  
menu berezia  
Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



*Jatearen plazarrera, bertatik bertara*

**Batzoki**

eguneko menua  
asteburuetako  
karta eta txakurak

ogitartekoak eta  
hamburgesak  
enbargo bereziak

Basilla eta  
lagun arteko  
beharriak

Dineroak 943 75 20 55



**BOLIA**  
TABERNA

Pirxoak, ardoak,  
kombinatuak  
Gazte-giroko festa  
Tel. 943 02 95 02



**EDURTZA**  
taberna

Ogitartekoak, txakurak,  
hamburgesak, pirxoak eta pizza  
Pizta txikiak egiten dira enbarguz

Santa Ana 18  
Tel. 943 75 13 83



**TXOKO**  
KAFETEGIA

**JAIETAN...**

Eguerdian: menu berezia eta ogitartekoak  
Gauean: ogitarteko, sandwich eta hamburgesak

Elkartzen  
gaituen  
txokoa

Kalebarreneko  
kale kantoian  
Tel. 943 75 17 89



# Oso Basatis taldeak diskoa grabatu du



Lau lagunek osatzen dute Oso Basatis taldea: Jon Elizburuk (bateria), Antton Alberdik (kitarra eta ahotsa), Ekaitz Uzinek (kitarra) eta Jon Oñederrak (baxua eta ahotsa). Eta hiru urteren ostean, diskoa grabatu dute.

2014an hasi ziren elkarrekin jotzen, “ondo pasatzeko helburuarekin”. Urtebetera, 2015ean, eskaini zuten lehenengo kontzertua Txurruka jatetxean, ezkontza baten ostean. Harrezkero, zuzenekoak eskaini dituzte, gehienbat, taberna eta gaztetxeetan: Sorraluzen, bailarako herrietan, Gipuzkoa barnealdean, Iparraldean eta baita Nafarroan ere.

Izenaren jatorria dela eta: “Basati hitza erakargarria iruditu zitzaigun, eta buelta batzuk eman eta gero, Oso Basatis izenarekin geratu gara. Eszenatokietan saiatzen gara izenaren mailan egoten. Kar, kar, kar!”.

## Rock&rolla eta punka

Rock&roll klasiko eta punk-rocka jotzen dute, baina saiatzen dira abestiei ukitu pertsonala ematen: “Sarri jartzten gara lokalean inprobisatu eta esperimentatzen, eta, halako baten, indartsua iruditzen zaigun erritmo edo riff bat irteten denean, landu eta abesti bihurtzen saiatzen gara”.

Hellcopters, Nuevo catecismo catolico, Chuck Berry eta La Banda Trapera del Rio moduko taldeetatik edan izan dute.

## Kontzertua parapentearen truk

Behin, Iturmendin (Nafarroa), parapente konzentrazio batean jotzera gonbidatu zituzten: “kontzertuaren truke, hegan egiteko aukera izan genuen taldekide batzuk, baina gure txanda heldu aurretik pare bat istripu gertatu ziren haizea zakar jotzen hasi zelako eta, kontzertua eman behar genuenez, erabaki genuen ez arriskatzea. Ez genuen hegan egin, baina bizirik gaude oraindik”.

## Jotzeko gogoz

Diskoarekin lanean ibili diren bitartean, ez dute kontzertuak eskaintzeko denborarik hartu, baina, orain, diskoa amaituta, jotzeko gogo handiarekin daude. Gainera, 3-4 abesti berri lantzen ari dira, datozen kontzertuetan estrainatu nahiko lituzketenak. Datozen egunetan eskainiko dituzten kontzertuak honakoak dira: Uztailaren 30ean Azpeitian joko dute; irailaren 22an, Gaztelupeko terrazan; eta irailaren 23an, Eibarko Legarre auzoko jaietan.

## LEHEN DISKOA



Zazpi kanturekin osatu dute diskoa: “aspalditik zuzenekoetan eskaini ditugun abestiak dira geuk idatzitakoak. Batzuk esperientzia pertsonaletan oinarrituta daude; beste batzuk, ostera, geure ezinegon edo konforme ez gauden kontuen gainekoak”. “Sumatzen ditudur lurrikarak paradisuari, gertu egon leike infernutik zerua” dio Lurrikarak kantaren pasarte batek. Auto-ekoizpen bitartez argitaratu dute diskoa: “lan handia izan da, ordu asko, baina pozik gaude ikusita gure kabuz emaitza txukuna lortu dugula”.



**IZXGUIRRE**  
Igeltzeritza



Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 649 867 280

**ARRANO**  
taberna



Etan! eta gozatu  
etzako pintxoak

Etakaburua 6  
Telefonoa: 943 75 24 09

**Belarrak** Loradenda  
eta befandenda



Loreak, elikagai ekologiko  
eta osasungarriak,  
kosmetika eta etxeko  
garbitzeko produktu  
ekologikoak

Etxeko esamainko zerbitzuak  
Enkarguak egiten dira  
Tel.: 943 75 30 31

**Hortz klinika** 27 urteko  
esperientzia

Jakier Alamo Med. Estomatologiko K.Z. 483001505  
Karlo Guilleme Otorinolaringo K.Z. 483001505

Itxur: gisero anestesio, ortodontia ornatu, presio-irratia eta mugimendu, ortodontia, ortodontia, irratimatu, estetika...

Enabal 1 - Tel.: 943 75 10 13



**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Larunbata: 08:30-13:00  
Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, ogia, prentsa, pastelek, bombonak...  
Etxera eramateko zerbitzua  
Jai zeriontsuak izan!  
Tel.: 943 75 24 43

**BOLINTXO**  
OKINDEGIA



943 75 25 45  
SANTA ANA KALEA 6  
MORLAZE

Sukalde  
tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetan menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko friboak  
Soufflés

**Armendi Jatetxea**



Tel.: 943 75 10 02

**P** Iragarri hemen  
zure negozioa

Pil-pilean herri komunikabidea  
686 028 946 (Gaizka) · [publizitate@pilpilean.com](mailto:publizitate@pilpilean.com)

**Kontulan** 

ABOKATUAZ  
ABOKATUAK

Errenta, siturperak, Administraziozko lanak  
Trafficko buruzkizak Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen konstituzio/abokatuak Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA



Zure gertuko hortz klinika,  
punta-puntako teknologekin lan  
egiten dugu. Cad-Cam sistema  
bertziazalea erabiltzen dugu.

Elizburua, 3 behea  
SORALUZE  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: [elizpe.hk@gmail.com](mailto:elizpe.hk@gmail.com)

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

**ION MURGIZU BAKAIKOA**  
PINTOREA



arruntza  
dekoratiboko  
inguruetan

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Soraluzeko  
Kooperatiba Elkartea  
1500etik zaharrik



janari denda, erropak,  
etxeko tresnak,  
etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:  
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45  
Larunbatak: 09:30 - 13:00

**Wendata**



Enkarguak egiten dira  
Eramateko prestotzen da  
Menu bereak enkargatzeko

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenetik ostiralera:  
09:00 - 13:15  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:00 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

Euskalzaletasunaren alde:



# Beti bezain bixi

ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Halakoxeak izan dira aurten ere San Andresko jaiak, bixi bixiak. Zapatuan ganadu, erreminta eta barazki-azoka ederra antolatu zuten auzotarrek, eta nahikoa indar gorde zuten gauean herri-afaria eskaini ostean, goizaldera arte dantza egiteko. Domekan, kirola, bertsoak, zezentxoak eta trikitia barra ertzean, kantuan edo borrokan ziharduten ezin igartzearaino. Astelehenean, bixamunik ez, eta hamalau mahai beteta, Lizaso eta Egañaren bertsoekin gozatu eta Laja eta Lurtxurdiorekin dantzan aritu ziren. Batzuek, egunak argitu zuen arte jarraitu zuten parrandan. San andrestarrok, bejondeizuela!





# Oporretan, *Al pueblo*



Mireia, Juan, Francisca eta Loli.

## ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Urtero moduan, herriko familia askok euren aitita-amamen jatorrizko herrian pasatuko dituzte udako oporrak. Nieves-Garcia sendiak, Andaluzian. Hiru belaunaldiak elkartu ditugu, eta euren jatorri andaluziarra zela bizi izan duten galdetzeko (Juan, Loli eta Mireia elkarrizketatu ditugu).

Juan Jose Nieves Ramirez Cordobako Rute herrian jaio zen 1937an. Maiatzean bete ditu laurogei urte; horietatik berrogeita hamabost, Plaentxian. Ez ditu galdu azentu eta hizketa-modu andaluz, baina, dagoeneko, gehiago sentitzen da hemengoa hangoa baino: “gustatzen zait Andaluziara joatea, neure herria delako, baina bizitzeko nahiago dut hau. Urtero joaten dira bisitan jaioterrira, baina opor-egun gehienak Fuengirolan pasatzen dituzte, Malagan; “hangoa klima atseginagoa da Rutekoa baino”.

Juan 1962. urteko ekainaren 20an heldu zen Plaentxiara. “Han atera nintzenez egun eguzkitsua zen, hona heltzean, oster, euria ziharduen, xirimiria, gelditu barik. Eta neure buruari galdetzen nion “baina noiz atertu behar dik hemen?”.

Soraluzera etorri aurretik, hamalau urterekin hasi eta hogeita lau bete zituen arte, Ruteko olio-kooperatiban lan egin zuen Juanek: “Kooperatibako presidente jaunari eskatu nion plantillan sartzeko, baina honek esan zidan ofizinakoa eta txoferra bakarrik sar zitzaketela plantillan. Orduan, anaia nagusiari idatzi nion, Marcelinori, gertatzen zitzaidanaren berri emanez. Hura ordurako Plaentxian bizi zen, eta esan zidan: ‘etor hadi hona!’”. Azkenean, bost anai-arrebak eta ama etorri ziren Soraluzera.

Garai hartan lan asko zegoen herrian, eta heldu orduko Osumaren tailerrea hasi zen

lanean, bere beste hiru anaiekin batera, tornuan eta taladroan. Lau urte egin zituen bertan, eta beste lau urte Elgoibarko San Martin enpresan, gero. 1970. urtean Sacian sartu zen, eta bertan lan egin zuen 1992an lantegia itxi zutenera arte. Harrezkero, ez du gehiago lanik egin beharrik izan.

Soraluzera etorri orduko egin zuen lagun-koadrilla. Lagunartean, batzuk bertakoak ziren; beste batzuk, bera bezala, kanpotik etorritakoak. “Ni erraz egokitu nintzen hona, bereziki, txikiteora... (barreak)”. Lagunartean egindako parranda asko ditu gogoan. Euskalduna edo andaluz sentitzen den galdetuta, Juanek dio berak lasaitasuna maite duela: “Hara joan naizenez esan izan didate Etarra ere, eta haserretu ere egin izan naiz baten batekin. Hemen, berriz, esaten didate independentzia iristen denean bota egingo nautela hemendik (barreak). Baina ni ez noa hemendik eh.”



Euskarari dagokionez, zera dio: “esan izan didate soldatarekin batera euskaraz ikastera behartu izan banindute, ikasiko nuela. Bai, egia da, baina ni etorri nintzenezan Franco bizirik zegoen eta euskaraz egitea debekaturik zegoen. Hemen ez zen euskararik egiten. Tailerlean dena gazteleraz egiten zen. Nik ez dut ikasi, baina hori bai, nik ez dut izan inoiz zelorik inguruan euskaraz ari zirelako. Zuk egin euskaraz eta nik andaluzeaz, gazteleraz egingo dut”.

Loli hamalau urterekin hasi zen euskaraz ikasten, euskaltegian. “Herriko eskolan dena gazteleraz ematen genuen eta bazegoen bereizkeria moduko bat euskaldunen eta kanpokoan seme-alabak ginenon artean. Amorrua ematen zidan. Ni euskalduna sentitzen naiz baina horregatik ez ditut baztertuko nire sustrai andaluziarrak. Oso harro nago eurretaz. Ni gaztetxotatik joan izan naiz Andaluziara udan, eta, han, mugitzen naizen giroan, ez dut arazo berezirik izan. Inor ez da gehiago edo gutxiago batean edo bestean jaio delako. Beste aldetik, nik ez dut onartzen kanpotik etorri diren batzuek euren herria bizi diren herriaren gainetik goratzeko izan duten jarrera. Zure herria hobe bada, gelditu zaitez zeure herrian.

Seme-alabak eskolara eramateko garaia heldu zenean, ikastolara bidali genituen eta oso pozik gaude euskaraz egiten dutelako. Nire aita



eta ama beti aittitta eta amama izan dira eurentzat”.

Míreia Lamariano hirugarren belaunaldia da, euskaraz badaki eta euskaraz bizi da. Oso ondo darama jatorri andaluziarrarena: “folklorean asko gustatzen zait eta oso gustora joaten naiz hara. Koadrilan “gitana” deitzen didate. Oso harro nago nire jatorriaz. Ruten harreman-sare txikia daukat. Malagan ditut lagun gehiago, nire moduan beste lurralde batzuetatik oportetan joaten direnak. Gainerakoan, hango jendearekin asko diskutitu izan dut hemengo kontuen gainean, ze batzuk oso erlijiosoak dira eta kontserbadoreak”.

Urdaiazpikoa janez eta manzanilla – infusioan hartzekoa ez, bestea - edanez amaitu dugu elkarrizketa. Ekerrikáko, familia!




1. Rute, Cordoba.
2. Juan Jose Nieves Ramirez eta Fancisca Garcia Ramirez “Kika”, besoetan Loli dutela (1962).
3. Juan eta bere anaia mutikotan, Ruteko lantegian (1950. Hamarkadan).

## ZORION AGURRAK

**Joar Alustiza de Castro**

Uztailaren 10ean 4 urte. Zorionak txapeldun! Patxo potolo bat ama, aita eta Arain partez.

**Unai Calvo Gonzalez**


Uztailaren 13an, 5urte. Segi horrela txapelduna! Muxu pila etxekuen partez!

**Laida Sanchez**

Uztailaren 21ean, 6 urte. Zorionak! Familiaren partez.

**Maddi Oregi**

Ekainaren 7an, 7 urte. Etxeko printzesa handitzen zoaz. Jarraitu halakoxe alaia izaten.

**Aitziber eta Ainhoa Lakuesta**

Uztailaren 19xan, 50 urte. Zorionak bik(!)ote! 50+50= 100! Horrenbeste patxo bixontzat, horrenbeste maitxe zaitxuztegulako! Iraultza, Sugar, Aetz eta Lahan partez.

**Maddi Alberdi Fernandez**

Uztailaren 16an, 8 urte. Zorionak politxorri! Muxu haundi bat etxekuen partez.

**Jon Caballero Mendizabal**

Uztailaren 15ean, 13 urte. Zorionak Jon! Muxu handi bat etxeko guztion partez, bereziki.

**Eñaut Ibarzabal Camacho**

Abuztuaren 7an, 7 urte. Zorionak txapeldun etxekoen partez eta muxu potolo bat.

**Irea Andres Martin**

6 urte. Zorionak printzesa! Muxu handi bat etxekuen partez

**Nahia Uribarri Carretero**

Abuztuaren 13an, 7 urte. Zorionak! Ez galdu inoiz irribarre polit hori. Milioi bat muxu!

**Unax eta Aimar Igartua**

Uztailaren 5ean, 5 urte. Zorionak mutilak! Aitatxon eta amatxon partez.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

**605 706 086**

(deitu edo bidali whatsapp-a)

**aldizkaria@pilpilean.com**

## HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Cecilio Hernandez Lanz

## ZUZENKETAK

Ekaineko alean argitaratu genuen Lagun Maiteak futboleko taldearen argazkian, Moises Arizaga jartzen zuen tokian, Ignacio Pintado behar zuen.

Ekaineko alean aipatu genuen, errotonda egingo duten bihurtuak Irukurutzeta izena duela joan zen mendearan erdialdera hildako hiru langileren omenez jarri zituzten gurutzeengandik, baina, dirudienez, ez da hala. J.A.A. herritarrak adierazi digunez, 50. hamarkadan gertatu zen istripu horretan persona bakarra hil omen zen, eta ez hiru, guk argitaratu genuen moduan. Gainera, gurutzeak lehenagotik omen zeuden han, garai batean leku horretan ito ziren hiru seminarista gazteren omenez.

## OHARRAK

**San Andresko zozketa****1. Saria. Spa saioa bi pertsonentzako.**

Zenbaki saritua: 0276

Sariduna: Koro Uribe

**2. Saria. Karretilakada produktu.**

Zenbaki saritua: 0187

Sariduna: Inazio Beristain

**Banatzailleak**

Datorren urteko maiatzera bitartean, Pil-pilean aldizkaria banatzeko ardura izango duen gazte taldea: Helena Lopez, Izaro Usobiaga, Miren Alonso, Elene Etxaniz, Mayara Zarobe, Ainara Esandi, Irene Etxezarreta, Iruñe Romero, Adur Odriozola, Iraultz Oñederra, Jon Ander Murgizu, Iraultz Oñederra eta Beñat Goenaga.

Pil-pilean Euskara Elkartearen izenean, eskerririk asko!

## ESKELAK

## VI. URTEURRENA

## Lurdes Ariznabarreta Eguren



2011ko uztailaren 23an hil zen.

Senide eta gertuko izango gara lekuko zure lorea gugan bizi da ez da inoiz ximelduko

Sendia

## OROITZA

## Moises Alberdi Egaña



Uztailaren 1ean hil zen Donostian 76 urte zituela.

Egunotan zuen doluminak adierazi dizkiguzuen guztioi, bihotz-bihotzez, eskerririk asko!

Sendia

# Ondo pasau jaixak!



**¡FELICES FIESTAS! BOAS FESTAS!  
GAUDIU DE LES FESTES! BUONA FESTA!  
FROHE FEIERTAGE! ВЕСЕЛИХ СВЯТ!**

آیین ہم سب مل کر میلے سے لطف ان دوز ہوں